

# Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan

(3 - Ipar-Artzibarko laginak: Hiriberri)

KOLDO ARTOLA\*

**L**au urtetako etenaldiari bukaera emanez, hurrengo lerroetan 1971-1983 bitarteko urteetan Artzibarko Iraberrin –horrela ahoskatzen zuten herriaren izena hango berriemaileek– bildu ahal izan genituen ipuin, ixtorio, etno-testu eta kantu zein otoitzen bat –inoiz hauetako zatiren bat besterik ez bada ere– ekarriko ditugu hona, hauetatik guztietatik zer baliaturik izango delakoan.

Inoiz bildu ditugun daturik zaharrenetarikoak dira 1971eko abenduan jasoriko hauek –aurren-aurrenekoak, urte bereko udan, Izaban eta Uztarrozen bilduriko batzuk baitira–, aspaldiko urte hartan hasi baikinena, magnetofoi apal baten laguntzaz, gerora mordoxka izan diren berriemaileei gure lehenengo bilketak egiten.

Abenduko Sortzez Garbiaren eguna igaro berritan izan behar zuen honnek, ziur asko, asteburua igaro asmoz Izaba aldera joateko erabakia harturik ohiko bidea alboratu eta Artzibarren barrena abiatuz herri honetan sudurra sartzea bururatu zitzaigunean. Emazte Mari Puy, hamar hilabeteko alaba Idoia eta hirurok agertu ginen, beraz, lehenengo aldiz, Hiriberrin.

Herrian sartu eta handik gutxira, han berean, adinekoen artean euskaldunen bat geratuko zen itxaropenean geuk egin galderari baiezkoko erantzuna jaso ondoren, *Garaikonea* etxera joan ginen. Han, berehala, oso era atse-

\* Donostiako ARANZADI Zientzi Elkarteko Etnografi Sailekoa.

Esker biziak ematen dizkiot, arazo gehienbat gramatikalak direla-eta, laguntzaile izan dudana Xabier semeari, Euskal Filologian lizentziatua.

Javier Hernandez Arsuaga musikari eta adiskide onari ere behin berriro eskertzen diot, bihotzez, lan honetan agertzen diren kantuak pentagraman jarri izana, lehenago ere, Zaraitzuko euskarari geure ekarpena egin genionean, egin zuen bezala.

ginean barrura sartzeko gomita egin zigutenez, guk haien bizimoduaz eta osasunaz galdetu eta geure buruen berri ere eman ondoren, haien mintzamoldeaz genuen kezka agertu genien, grabazio bat egiteko baimena eskatuz.

Grabazioa erabat informala izan zen, ez baikenuen ezein galde-sortarik ez beste ezer erabili, jakin ere ez baikenekien halako aukera sortuko zenik ere. Urteetan geure burua amateurtzat jo izan dugunok hamaikatxo inkesta eta saio egin ondoren ere, aurrenetariko bat izan zen honetan, nahitaez, agertu hainbat gabezia jakingo ahal du barkatzen balizko irakurleak!

Lan honetara, orobat, 1980-1983 bitarteko epean Hiriberri bereko beste bi iturri desberdinetatik bilduriko materialak dakartzagu: Lehenengoa eta ugariena *Markos* etxeko Ambrosio Usoz jaunari jaso eta, bestea, *Pelairé* etxeko haren lehengusina Paca Larragetari, Agoitzen bildua.

## DATUEN TRANSKRIPZIOAREKIKO OHARRAK

Ia aditzen ez diren hizkiak –lan honen aurreneko entregan esanikoa oroitara besterik ez dugu egingo– parentesi artean idatzi ditugu.

Bokal batzuen itxierak: *a* eta *e* artekoa *ä* idatzi dugu; *e* eta *i* artekoa *ë*; *o* eta *u* artekoa, *ö*. Inoiz *i* baten irekiera ere *ï* idatzi dugu, *artzaëa* edo *geëago* kasuetan bezala, adibidez. Azkenik, *i* eta *u* arteko bat aditu uste izan dugunean, *ü* idatzi dugu.

Azken honek bitxi samarra iduri badezake ere, oroitara nahi dugu Bonaparteren eskuizkribuetan hitzek artikulua hartzean zernola jokatzeko zuten adierazteko hark berak idatziriko orrian<sup>1</sup> zera irakur daitekeela: “Uriz: á, eá, ía, oá, úa”, azken honen kasuan, *u*-aren gainean eta tildearen azpian, puntu-txo bat agertzen dela.

Uritz hau, hain zuzen, Artzibar honetako erdi aldean kokaturiko herria da. Honetan idatzi bide zuen Juan Cruz Elizalde<sup>2</sup>, XIX mendearen erdi aldean, ezagutzen den kristau dotrina, zeinaren hasieran zera irakur daitekeen: “Arcico Vallea componcen da oguei eta vorz erri eta caserioquin, Urizco erria dago erdisuan, eta Valleco uscara dá, nic oray esplicacen duten vezala”.

Alabaina, oraingo saio honetara dakargun Hiriberriko ekaietan maiz aurkitzen ditugu, *-e* eta *-o* bukaerako hitzak mugatzean, *ëa* zein *ia* eta *öa* zein *ua* moduko emaitza erdi diptongatu edota erabat diptongatuak, diptongatu ga-beak aurkiturik ere.

Honetaz guztiaz mintzatu ginen gure lan honen lehen entregan “(1 - sarrera eta lehen galdera-sortak)”, *FLV*, 103, 2006, 6. orrian, non, Artzibarko ibar bereko Arrietan zein Espotzen era bateko zein besteko adibideak bildu-

<sup>1</sup> “Bonaparte ondareko eskuizkribuak-Hegoaldeko goi-nafarrera” izenburuko liburuetan, hain zuzen.

<sup>2</sup> Juan Cruz Elizalde hori Artzibarren berean jaioa zen jakin nahian hurbildu ginen halako batean Iruñeko Artzapezpiku Jauregira, Urizko dotrinaren izkribatzailea artzibartarra izatekotan hango euskara jatorrean idatzita egotea ziurtatuko baitzukeen horrek, baina ez genuen zorterik izan, gure gizonaren izena ez baitzen ageri Jauregiko artxiboetan gordetzen dituzten apaizen zerrendetan. Dotrina, hartara, laiko baten eskukoa izan zitekeela ezan ziguten, non-eta kongregazio bateko fraideren batena ez zen.

rik geundela esanik ere, era diptongatu gabeak besteak baino nabarmen gehiago zirela garbiro adierazi genuen.

Bestalde, ikusi ere inoiz ikusi egin dugu *ai* diptongoa *ei* bihurtzeko joera, Aezkoako auzo-mintzaera, neurri ttiki batean bada ere, oroitarazten duena. Hona hitz batzuk: *geizkizu*, *gauzeik*, *zein*, *izein*, *oeteik*, *bazeilan* (= bazabilan) eta *eguneiki*, adibidez.

Azkenik eta gure ohiturari jarraiki, bi eratako azentuak erabili ditugula esan beharrean gara: indar edo intentsitate handikoa (´), bat, eta hori baino txikiagokoa (˘), bestea.

### 1) Garaikoena etxeko grabazioa (1971)

Berriemaileak:

Francisca Larrageta Monaut (FL), 84 urte. Ama herri berekoa zuen eta aita Orotz-Betelukoa.

Lino Mendez Exposito (LM), 85, Franciscaren anaia, honen gurasoek Inklusatik atera eta semetzat hartua; eta

Soledad Arbonies Larrageta (SA), 51, Franciscaren iloba. Gurasoak ere Artzibarko herri honetakoak izan zituen<sup>3</sup>.

LM - Bah, oráingo gaztéak? eztuté konprenditzén ere.

SA - Bátre.

LM - Eee... ai diá galtzén... déna.

- *Zenbat euskaldun dira orain Hiriberrin?*

LM - Zénbat? ejéje! eztakit, emén, niók ere eztúte... estuté erráten éré euskarás, pittát? dénak erdéras. Ta orángo gaztíak? estúte konp-, oandíó, mákúrra dá baiä estuté... kònpredítzen ére.

SA - Déus ez!

- *Etxe honetan bazarete hiru...*

LM - Bai, íru, íru... bah! zérbait, bai.

- *Eta Arrietan?*

SA - Bah!... Esteban, Esteban será...

FL - Apezàin amá? uskáldúnä; apezáin áma uskáldunä.

- *Bai? eta Arrietakoa?*

FL - Ez, Arritákua éz... bertzé ballékua, eztákit non-ángua den.

- *Erro aldekoa edo?*

FL - Ez, ez, baztándárta.

- *Ah, baina nik nahi dut Artzibarkoa...*

FL - Ez, ez, Arrítan níór, ézta; éz-ez-ez...

SA - Juan Esteban...

FL - Juan Esteban me parece...

SA - Juan Esteban sí...

<sup>3</sup> Soledad hau, lerro hauek *Fontes*-a bildaltzeko azken erreposoa egiten ari garen 2010ko ekainean, Tafallako Agure-Etxe batean bizi da anaia batekin batera. Duela urte gutxi, 2002an zehazki, Aitor Arana adiskide saiatuak informazio luze bezain baliotsua erdietsi zuen harengandik bere *Hegoaldeko goi-nafarrera. Artzibarko aldaera (Hiztegia)*-rako.

- *Arrietakoa da?*

LM - Del valle de Erro es, pero...

SA - Ah, y también ése, Julián... Julián, también, sí; en el frontón...

FL - Orí? Errókua dá, baña Arrítan, Arrítan bizí da; ezkóndui taó Arrítari<sup>4</sup>.

- *Eta Lusarretan bada norbait?*

SA - Bai, bat... uno sí, Esteban... *Gardoréna. Gardoréna, sí (...), Gardoréna*, el viejo sí, hijo de allí: Esteban Espinal. Y en Saragueta no sé, en Saragueta quién, *Itxèberrí?* el viejo? Bueno, quiero decir que si sabrá ése vasco, yo no sé...

LM - Sí, además, aquí algunos unos vascos que vienen de ahí, de... de esas tierras vascongadas, pues ¿a los críos? se comienzan a hablar en vasco entre ella (sic), en cuanto nacen, jéje!. Bah! total, el castellano, en las escuelas ya aprenderán también.

- *Orain euskara ere irakasten dute eskoletan...*

LM - Ah, bai?.

- *Bai, bai, eskola batzuetan bai. (Franciscari): Eta zu nongoa zara, Hiriberrikoa?*

FL - Bai.

- *Eta aitatamak, nongoak?*

FL - Aitá Orózköa, ta amá itxéköa. Ník enué záutu áma; ník sórtu ta bí ilebetétan íl tzen úra.

- *Zenbat urte zenituen hemen euskaraz mintzatzeari utzi zitzaionean?*

FL - Gúti, gúti, gúti... áitak bakárrik.

- *Zuk hogeí urte zenituelarik, hemen, karrikan, euskaraz mintzatzen zen?*

FL - Ez! sekúla, sekúla.

LM - Eskúas emén, déna érderas! erderás, déna. Ta zenbàitxúk? ník usté... atzéunte, erràteunte... atzéntzen déla, ézpadá...

FL - Mintzátzen, eztá? mintzátzen.

LM - Mi(n)tzátzen.

FL - ¡Claro! toda la lengua se entorpecece si no se habla.

SA - Y se olvida... habría que hablar siempre, porque no teniendo con quién hablar...

FL - Así que no se ha hablaö más que las dos lenguas, mal habladas: el castellano malo... y el vasco peor.

- (FLri): *Baina zure iloba franko gazte da eta ikasi zuen...*

FL - Bai, bai...

- *Horrek erran nahi du bera ttipia zelarik etxean euskaraz egiten zela...*

SA - Emén bai... báí-bai.

- (SAi): *Eta norekin ikasi zenuen? andre honekin?*

SA - Ta... tío eré, bai; óri tía... da, ta... béra...

- *Haren senarrarekin?*

SA - Itxéan báí, béti.

- *Etxe honetan bakarrik?*

SA - Bai.

<sup>4</sup> Atzizki datibodun akastuna erabili zuen berriemaileak.

- *Etxe honetan bakar-bakarrik? bertze inongo etxetan ez...*  
 SA - Sí, ya había otros también, sí, ya había; ahora ya no están aquí. Ya sabían, ya.  
 - *Y ahora ¿dónde están?*  
 SA - En Pamplona.  
 - *Herri honek nora jotzen du bere harremanetarako? ala kanpotik etortzen dira gauzak saltzera, edo?*  
 LM - Emén, ataríá etòrten (sic) diré, atarirá etòrtzen diré...  
 SA - Egú eré torrí dire, emén.  
 - *Noiz? egu?*  
 SA - Egú, bai, jua díre, ahora, jua díre, egù eré.  
 - *Nondik etortzen dira?*  
 SA - De... del valle de Erro, de Bixkarrét.  
 - *Eta hemen, nor galdu zuen lehenago euskara, gizonak ala andreak?*  
 LM - Je! ètzakit! bah!... klaró, zarrák íl ta, geró... gatzéak gè(i)ltzen dére, geldítzen diré, euskára... mintzá-, mintzátu gábe.  
 - *Nor hasi zen lehenago erdaraz mintzatzen?*  
 LM - Bah! dénak, dénak berdín...  
 FL - (Gure haurrari begira): Neskátxa ta muttíkõa, e? bai? orí erràten dú áitak. Nún da áita? nún da áita? ará! áita, áitá, áita...  
 SA - (Haurrari): Amá? or? amá eré ór dago...  
 FL - (Haurrari): Amá nún da?  
 SA - (Haurrari): Amá itsúsia dá? edérra...  
 FL - (Haurrari): Katsú pótta, pótta... idán pótta... kátsu (bi andreak barez, halako ume ttiki bati begira geratzean maiz gerta ohi denez). Kátsu pótta, kátsu, kátsu... ¡míalo!... Las manicas tiene heladas.  
 - (Emazte Mari Puy): *Beti, e? beti...*  
 FL - Ah, béti ótzak?  
 LM - Aquí el bizkáino no, aquí nadie lo puede comprend-, lo comprende. Oooh!... aún el ipuzkõáno... ya, ya se habla mejor, pero el biskáino?  
 - *Hemen eskola izan da?*  
 LM - Eskóla? ez; bai, itxéan dá baña... orái eztá... gàzte gúti, mutíko gúti, eta neskáto ta, eh!... géro, orái? orái ézta... lenágo Arrítan, Arrítara juàten gíñan, bañá... orái ez Arrítan te éz ñión emen, eztá eskólaik, ezpáita... ezpaitá jendéik.  
 - *Eta orain, hemengo ttikiak nora joaten dira?*  
 LM - Nóra? jajá! al dúten lek-, lekúra.  
 - *Baina herri honetakoak nora joaten dira?*  
 LM - Je! bai! eztá bát ezík, bat, mutíko, mutíko bát, ta... arék, amár urt-, amaláu úrte itén dú uéi; eztú, eztá jendéik éne<sup>5</sup>...  
 - *Ez da neskátiko eta mutíko ttikirik hemen?*  
 LM - Éeéh!... ez!... esperántzaík eré ez, éz itékorik, eztákit, éz, eztirà ezkontzén!... ta, ta geró, ezkondù<sup>6</sup> arté...  
 SA - Ta geró, bah! denbóra pastén da.

<sup>5</sup> 'ere' izan daiteke hori, antza.

<sup>6</sup> *ezkondü* aditzen uste dugu hor.

- *Galdetu diot haur txikiak zein eskolatara joaten diren eta...*

SA - Bat, badá bat, bát bakárrik; juàten dá...

FL - Billára, Billabéta... bai, o Billába, ta ór... frailetara.

- *Eta Arrietako haurrak, nora?*

FL - Iguál, juatén dire, aétara, bai; nëxákuak? monjétara... ta mutíkuak? fraillétara, bai.

- *Eta Urizkoak?*

FL - Òek ére iguál, bérdin, ígual. Eskóla izéin dèrá errí gúzietan bàña aurrák juàten diré... orráta, fráiletará ta mónjetara, bai.

- *Agoitzen ere izanzen da eskola ederrik, han jende aunitz baita...*

FL - Bah! Agóitzen báí... báí-bai. Èmen eré bazén éskola bañá, ya, geró, famíliak joan tziré... kapitaléra, está en Pamplona la gente, y... como había, aquí estamos muy pocos ahora, no hay más que siete familias y en las siete de familias cortas, de pocas personas.

LM - Aquí, este barrio de arriba? barriò ontán? zazpí etxètán? sei, sei...

- *Hutsik?*

LM - Útsik. Ta... lúrra ta oék, eòten dá bértze... étxe bat bakarí(k) ta, arék, arék e... zèin duté, e... lána; lantzén aik, iten diré lának. No sé, la siembra aquí, siembrándolos... y así?... zazpiétaik? xéi, séi... etxé, etxéa, etxéak utsík.

- *Eta nagusiak, jabeak non daude, Iruñean eta hola?*

LM - Eh! batzúk Madrílen ta bèrtze átzuk... Iruñe ta, bai.

- *Eta zer egiten dute etxeekin? saldu, edo bakantzetarako gorde, edo?*

SA - Zárta tiré, zárrak... etxéak zarrák.

- *Ez dute balio saltzeko ere?*

SA - Ez, ez, bátre.

- *Erortzen ari dira?*

SA - Bá-bai... ta fíte.

LM - Bah, eróriko dire báí, bèn dénboraiiki.

FL - En vasco... no le explicaré bien pero en castellano le diré: las familias que han ido de ese... de esas casas de arriba? están mejor allá que aquí.

LM - Porque no tienen tierra.

FL - Porque aquí, trabajaban en la tierra, pero en la tierra que se les daba en estas casas grandes, las peores que pudían cultivar aquí, se las daban a ellos. Hacían alguna rotura, y de aquella rotura pa cuando querían cultivar, sembrar, y hacía a lo mejor al año siguiente un pedrisco, o si no que les han comido los ratones o... o las ortigas? ya no tenían nada, y hoy, tienen el jornal seguro, el seguro, y están mejor allá, y están los que han ido de ahí con sus casas, y han compraö pisos...

SA - Sí, poco a poco pues van pagando...

FL - Sí, sí, sí... están bien, están bien.

LM - En algunas están abandonando las casas.

FL - Una está en Agóiz, una familia, de esas casas; otra? otra está en Madrid, y las demás están en Pamplona, y están bien, sí, los hombres están trabajando en la serrería, de los Giles, que ustedes ya sabrán, en la serrería de los Giles, y otro joven está en la Diputación, cuidando los toros que tiene la Diputación, ganando buen diario; aquellos no quieren venir aquí, no, ahora...

no quieren venir. Y luego, de estas casas grandes? dos familias se fueron y allí están con sus pisos, y... las casas están cerradas. Y en el tiempo de la patata, siembran campos de patata aquí, y después la patata la venden o no sé lo que le hacen ahí, sí.

LM - Pues poco a poco... vienen a desaparecer y luego, luego no querrán venir nadie y... desaparecerán las casas. Pues ahí, aquí, en este valle... no sé cuántos pueblos hay que están cerraös, no... no vive nadie.

- *Urdírotz eta, e?*

LM - Sí, en Urdíros también me parece que...

FL - En Burlada viven los de Urdíroz.

- *¿En Burlada? eta lehen zenbat familia ziren?*

FL - Familia larga. Aquí está una de Urdíroz casada... en esa casa debajo de la iglesia, ya habrá visto usted la torre? pues ahí, en esa casa está, de dueña. Ya tiene una chavalica... sí.

- *Eta lehen zenbat familia ziren Urdírotzen?*

FL - Emezórtzi.

- *(Harriturik): Hemezortzi familia? Urdírotzen?*

FL - Ah, Urdírotzén ez, emén, emén.

- *Eta Urdírotzen, zenbat?*

FL - En Urdíroz... íru.

- *Zure gazte denboran?*

FL - Bai... íru bakarrik.

- *Eta Imizkotzen zenbat?*

FL - E... Imízcutzén iguál, bai; bí bezíno, itxe aúndiekín ta... lúrra... abundánte, vamos, tierra aundánte, no quiero (!) explicar bien, y... caseros. Y ahora no vive más que una familia, y aquélla, está con proyectos de ir a Burlada, que tiene el piso compraö, seguro, y así que... No, ya se van desapareciendo estos pueblícos, sí, ya se van...

LM - Ahí están... ¿qué pueblos? Gorráiz, Muñái(n), Utiáto<sup>7</sup> y no sé cuántos, Lakábe, y... todos estos que están...

- *Espotzen bada familia bat...*

LM - Bai, Espozén bai... sí, ya dicen, un 'americano' o no sé quién...

- *Ba Uritzen badira bederatzi familia, eta Nagoren zazpi edo zortzi... Ar-tzen ez da inor, Zanduetan ere inor ez da...*

FL - Niór, niór... niór.

LM - Geró Ósa, Záspe e... Asnóz y Gurrpégi... no sé cuántos pueblos hay que, que no, que están cerraös.

- *Eta hemengo gizonak maiz joaten ziren kanpora?*

FL - Ze, eméngöak? lurréan trabaját-, lúrréan trabájéan, bai.

- *Bai baina nora joaten ziren? Auritz aldera, Agoitz aldera... nora?*

FL - Irúñen díre, Irúñen. Están en una serrería (...), en la tierra.

SA - O si no en los montes también, hacían carbón.

- *Bai? ikatza egiten zen?*

SA - Lotes... lotes, se marcaba en el pueblo y después se hacía carbón.

- *Eta non egiten zuten?*

SA - Emén! go(i)ttiák!

<sup>7</sup> Uligoiti izeneko eremua (gazt. Uli Alto).

- *Zein mendi dira horiek? zer izen dute?*

SA - Pues muchos nombres llevarán: Zazpikún...

LM - Bèrrazabál...

FL - La familia de Lakabe vive ahora en Burlada ¡ya se han ido todos a las capitales!...

LM - Ya hay unos diez pueblos o... ya, ya están desp-, en este valle yo creo que están desaparecidos.

FL - Esa cría (gure haurra) bastante hace de estar callandico; sí, sí, se ve que es buena...

- (LMi): *Noraino joan izan zara zu?*

LM - Nóra? jéje! emén geldí-geldía emén guk...

- *Beti geldirik?*

LM - Jéje! klaró! orái tzàrtu gerá ta, emén... (e)on biárko, geldí-geldía.

- *Eta lehenago? gazte denboran? Iruñera edo...?*

LM - Bah! ni? ní emén, lanian betí...

- *Herri honetatik atera gabe?*

LM - Bah! gúk ezkará... zenbáitxuk bezála... juañ éz (...), Íruñera ta... eh! béti emén!

- (FLri): *Eta zu noraino joan izan zara?*

FL - Nor? ní emén, betí errí ontan.

- *Atra gabe?*

FL - Átera<sup>8</sup> gábe.

SA - En Francia también ya ha estaö, en Francia también.

- *Frantzian ere egon zara? zein lekutan?*

LM - Doniáñen o alá, ya.

FL - Con el difunto marido estuve en Baiona, que se operó del estómago; le operaron de una úlcera. Y allí, el poco vasco que tenía... me valió; me hablaban en francés y yo no sabía nada, y en vasco cuando me hablaban, pues ya, ya entendía algo. Y... allí estuvimos veintidós días.

- *Erran zazu, erran zazu euskaraz...*

FL - Eztákit erráten, eztákit, eztákit erráten. Bai. Pues allí estuvimos y le operaron de una úlcera y después aquella misma úlcera (...). Murió con cáncer, sí.

- *Hala ere eritasun horren kontra aunitz aitzinatzen ari dira...*

FL - Bai, orrékin, baña eztúte... alkórzatiko<sup>9</sup>, ez.

SA - Dirú kentzekó bai.

- (SAi): *Zuk euskara ongi dakizu, e?*

SA - Bai, gúti-gúti.

- *Eta zu noraino joan izan zara?*

SA - Hasta Pamplona.

- *Urrunago ez?*

SA - Ez, ez, ez...

<sup>8</sup> Jakingarria, agian, laburbilketak hain ohikoak izan diren lekuan, guk geuk, haien mintzamoldera hurbildu nahiz, *atra* hori erabili arren, erantzuna laburbildu gabeko eran biltzea.

<sup>9</sup> Iribarrenek honela dio *VN* ezagunean: "ALCORCE. Atajo en el camino. Senda por donde se ataja. [Pamplona, Cuenca, Ribera y Zona Media]. El Dicc. la incluye como voz aragonesa". Interesgarria iruditzen zaigu halako mailegua aditz gisa agertzeaz gainera, honen baitan hain txertaturik aurkitzea, *-tiko* bukaera eta guzti, Artzibarko mintzamoldean eta inguruko beste batzuetan ohikoa den bezala.



- *Eta bertze aldetik? Aezkoara edo...?*

SA - Bai, Orbáizéta.

FL - Ha estaõ en la Aézkoa (...); allí tenemos unos primos, en Órbaizèta.

- *Eta Baztan aldean, ez?*

SA - Éz-ez-ez-ez...

FL - Ez, ez, Baztánen éz... Pues se dize: 'el caracol donde naze paze', quieto.

LM - Aquí el vasco no se puede pronunciar nada por... Gipúzkoa y e-, hay algunos que han (...) y les enseñan a los críos y en tanto nacer y así, a hablar ¡y esos tienen que aprender!... pero aquí no, aquí (...) no, ni...

SA - Ese otro que está aquí también (ultamar bat) ya sabe vasco pero, otra manera de vasco.

FL - Pero aquí hay, ya... pocos vascos ahora, no hay, no hay.

SA - Ése sí, ése habla mejor que el castellano; en su manera de hablar...

- *Zuen gazte denboran egin izan duzue esku-lanik? ezpartinik edo...?*

FL - Emén ez, espartínak éz e. Agóitzen... bai.

- *Nola egiten dira?*

FL - Bah, eztizút erráin, vamos, no le enseñaré porque no sé, pero un cojo había en Agóiz y hacía alpargatas, y muy buenas hacía, pero no le puedo explicar en vasco... Éz-ez... no, éz-ez-ez... no sé yo, sólo que hacía alpargatas, pero yo no le veía hacer. Yo no, yo no hay hecho nunca...

- *Y usted ¿ha hecho algún tipo de trabajo manual?*

FL - Sí, toquilla o... chaquetas de punto sí; de ahí p'adelante no, calcetines y esas cosas sí, pero más no...

- *(Art)ilezkoak? ¿de lana de oveja?*

FL - Sí, de lana, de lana, sí, sí, de piel de oveja.

- *Eta saskiak eta? 'cestos' eta, holakorik ez?*

FL - Ya hacían cestos, sí; yo no había conocido hacer pero ya hacían, con paja y sargas, la corteza de la sarga? y unas cestas muy majas hacían. Yo veía y de aquí, pero esta casa fue quemada y se quemaron.

- *Sarga, zer da?*

FL - Larrá, larrá; arí kendú... azála, ta azál garekín?... zèstoák in. Limízik aútza, ála, ta geró orí ála. Sí, hacían cestos muy grandes, muy majos. Ahora, si hubiera tenido uno ya le enseñaría cómo eran... ¡ya se quemaron!

- *Aotza zer da?*

FL - Agótza? pues 'paja'... como a la hierba le llamamos belárra.

SA - Belárra.

FL - A la hoja óstoa.

- *Y 'el árbol'?*

FL - Arbólia... bai, arbólëa; arítza ta bágöa... bai, itxaórra, ta gaztáña ta... ála!

- *Ze eguraldia dago gaur?*

SA - Egú... gaixtóa, bai, egú bai, ótza.

LM - Ótza betí, ikára ótza.

- *Eta atzo?*

SA - Atzó? óna.

- *Nola erranen duzu: 'hoy está peor tiempo que ayer'?*

LM - Makúrra egún, egún makúrrego, atzó bañó makúrreago, órai.

- (FLri): *Egun goizean zer egin duzu?*

FL - Izótza! izótza alórrean.

- *Eta etxe barnean?*

FL - Etxè barneán? sú óna egín, beróa.

SA - Beróa, bai.

FL - Hala! arén ondoan.

SA - Berótzéko.

- *Bai, behar da, e?*

SA - Bá-bai, denbóra... obékio zeón da, bai, emén.

- (Oraingoan LMi): *Egun goizean zer egin duzu?*

LM - Éje! gauzá gutí... lán guti, poco trabajo.

- (MP): *Ba, neguan... neguan gutxiago.*

FL - Bai, bai, yá urbíl dágo néguä; ogéita bátean... sàrtzen dá néguä, bai.

- (FLri berriro): *Eta zuk egun zer egin duzu?*

FL - Égu zer eún?

- *Bai, zer egin duzun...*

FL - Ník ja ére, suóndua émen. Já ere éztut in.

LM - Azpiák berótzten.

- *Zein ordutan jaiki?*

SA - Zórtzian.

- *Zortzietan?*

SA - Pástuik, bai, pastuík.

- *Eta gero?*

FL - Geró? otóitzak ín...

- *Otoitzak egin?*

FL - Bai, bai; zúk ere inen túzu otóitzak... klaró!

- (MP): *elizara?*

FL - Ez, ez, itxían, ítixian... itxían.

- *Eta euskaraz egiten duzu?*

FL - Ez, ez, erdéraz, erdéraz...

- *Inoiz ez duzu egin euskaraz?*

FL - Eztákit ník uskáraz já ere.

SA - Aittágúrea... píxkat.

FL - Ait(t)ágúria píxka-píxk'at.

- *Nola erraten duzu aitagurea?*

FL - Áita gúrea zeruétan zaudéna, santifika bédi zúre izána (sic), tórri bédi zúre erreíñöa, kúnpli bédís gúresé (sic) borondáte sándua, zéruan bezála lerrúän (sic) ere. Èman dezáguzu egúnorósco ógia, bàrka dizkigúzu gúre (sic) gàuren zórrak, gúk eré barkàtzen ttú(u) gaurén zor gàiztuztenéi, ya béiz y libre geizkízu gàiz guziétaik, alá biz.

(*Jarraian, agurmaria eman zuen*)

Abè María, gráziaz bétia dáó, Jáuna daó zurékin, (...) àndre gúzien értean bedikátua dá zúre sabéleko frutuá, bedikátua dá Jesús. Santa María, Jan-goikoarén áma, zúk òtoitz ín tzázu gureáur pekátua rengatík, orái ta bétí...

(Puntu honetara iristean zertu zen etenalditxo baten ondorioz otoitz honen bukaera bildu gabe geratu ginen. Urizko dotrinari erreparaturik, alabaina, interesgarria iruditu zaigu bi otoitz hauen bertsiok hona ekartzea, balizko erkaketa baterako, Urizko *Ave Maria*-ren lehen zatia oso desegokia izan arren. Hona beraz Urizko dotrinan agertzen diren bi otoitzok, koadrotxo batean sarturik):

Aita gurea, Ceruetan zaudena, santificabedi zure icena, etorri vedi gure gana zure erreñua, cumplivedi zure borondate Sandua, Ceruan vezala lurrean ere. Emandezaguzu eguneroco oguia, eta varcadizquiguzu guri gauren zorrac, ala nola guc barcacen baitiogute zor gaitusten eri, eta libra gaizazu gaiz gucietac AMEN. Ala izandaela.

.....

Ave Maria gracias betea Jauna da zurequin, vedeicatua da zure sabeleco frutoa andre gucen (sic) ermean eta vedeicatua zure sabeleco frutua Jesus. Santa María, Jangoicoaren ama, zuc otoiz eguinzazu gu pecatarien gatic, orai eta veti gure erioceco orduan Amen.

- Beraz, zortzietan jaiki, otoitzak egin, eta gero? (gure alaba negarrez ari)

FL - Geró? itxéko lanétan! klaró, klaró... itxéko lának, guátzeak ín, garbítu étxia, almórtzua prestátu...

- Goatzeak?

FL - Ta... guátzeak in beár diré...

- Zer dira goatzeak?

LM - La cama.

FL - Oéak, las camas... sí, hacer las camas, barrer...

- 'Barrer', nola erraten duzu?

FL - Garbítu itxéa, bai; géro almórtzua prestátu, ta... ála! àue káuza abék... bai. Maztéki lanák oék diré, bá-bai, oék dire; eunéro berbérak, berbérak, bai.

- (SAi): Eta zuk zer egin duzu?

SA - Éjeje... egúrta karrí ta alá.

- Eta 'poner', nola erraten duzue?

SA - Parátu.

.....

FL - "Eúskal Erríak dauká amá bat séndoa; zéin zëra zú Birjiñá Arántza-zúkoba"<sup>10</sup>. Orí bakárrik, ník eztakít bizkarr éz.

- Eta kantatzen ez dakizu?

FL - Éz-ez-ez.... uskáraz éz, dénak erdéraz.

LM - "Àma Berjína abendúko, sekúla ezpalíz" (esaera). Eso es por el invierno, ahora recién pasada la Virgen, pues... pues la Virgen en mal tiempo, y que más valdría ser San Juan y San Pedro todos los días, pero...

- Noiz erran duzue direla hemengo festak?

SA - El ocho de setiembre... la Natividad.

FL - Este año se suprimieron; en las pocas casas, había, en cuatro, lutos. El padre de ésta, recién muerto y el amo de esa casa recién muerto, así que... no había fiestas; total, en siete familias? en cuatro casas luto y se suprimieron las fiestas.

LM - Setiembre, me parece que se dice... urréa, úrria o, me parece que...

<sup>10</sup> Hitz honen -oba bukaera inguru honetan ez da batera ohikoa. Campioneek 1880. urtean argitaratu emaniko *Orreaga* baladaren Orotz-Beteluko euskal bertsoan, German Garmendiak egina -gure berriemile honen ama ere, oroitarazten dugu, herri horretan jaioa zen-, ez da halakorik agertzen: *loa, ichasoa, ostoa, otsoak, dardoak...* baina bai -uba bukaerakoak: *mugitubak, oyuba, errendituba...* b tarte-katu gabeko beste batzuekin batera: *indartsuak, famatua, loakartua* eta *zeruak*, adibidez, *zerubetan* agerturik ere.

- *Eta hemengo jendea beztitzzen da bertze era batera, festetarako?*

SA - Ez, béti bezála; bá-bai.

- *Artzibarren ez da jazkera berezi edo propioaren bat?*

SA - Ez, ez... no, no, siempre igual. En Roncal sí.

- *Aezkoan ere bai; hemen ez?*

SA - Emén ez, batre.

- *Hemen, numeroak nola dira? (gure alabatxoa eten gabe negarrez)*

LM - Bat, bída, íru, lau, borz, sei, zázpi, zórtzi, bedrátzi, amár. Améka, amábi, amaíru, amaláu, amabórz, amaséi... emezórtzi, emerétzi, ógei. Después, otra vez comienza... ogèitabát, òitabía, òitaíru, òitaláu, òitabórz, òitaséi, òitazázpi, òitazórtzi, òitabeátzi... òitamár, que son treinta. Después, otra vez, ogèitaméka, ogèitamábi, ogèitamaíru, ogèitamaláu, ogèitamabórz, ogèitamaséi, ogèitamazázpi, ogèitaemeròtzetí (sic), ogèitaemerétzi... berrogéi. Después otra vez se comienza berroéitabat. Después hasta irútanogéi, sí (...), después, lauètanogéi es, después de làutanogéi, cien... égun.

- *Eta astegunak? (gure Idoia ttikia, berriz ere, 'bikainki')*

SA: Lunes, martes, miércoles y así?

- (MP): *Astelena?*

LM - Astèarteá? lo que es, sí, ástea. Después, los jueves, eso es, ortzegúna, los viernes òrtziléria, y... los sábados, larunbáta. Y después, los domingos, iéndea.

- *Eta hilabeteak?*

LM - Ah, ilebétiak? eztákit e... otsálla, pa febrero béti; después, enero, no sé cómo es... martxóa, después aprílla, abril; después, pa mayo, mayátza, y después, pa junio, garartzároa, después garílla y no sé (...), agóstoa, bueno, eso ya es como castellano, después urría es setiembre.

- *Nola erraten duzue 'primo' eta 'suegro'?*

LM - Lengúsia o cómo será? suegro, nada, ay! no sé.

- *Eta 'el zorro'?*

LM - Ése es ganaö... de fuera.

- *'Azaria' edo, ez?*

LM - Ah, azariak? azária ya se dice también, azaría.

- *Eta 'liebre'? erbia edo?*

LM - Érbiá, me parece que sí... sí, sí, sí.

- *Eta 'jabalí'?*

LM - Ah, jabalí... no, jabalín, ahora están, ya van cogiendo la jente aquí, jabalines, de los montes.

SA - Érbi, pa las liebres, érbi.

- *Eta 'jabalí'? basurdea?*

SA - Basúrdia, así será sí, basúrdëa, ya tenía yo oída ésa a mi difunta madre también.

- *Eta 'cerdo'?*

SA - Tzéria.

(Bukaera aldean ere alabatxo Idoiaren negarrezko *kontzertu polita* entzun daiteke)

## 2) Markos etxeko grabazioak (1980-83)

Berriemailea:

Ambrosio Usoz Imirizaldu, 1901ean sortua; gurasoak ere *irabertarrak* izan zituen.

Aranzadi Zientzi Elkarteko adiskide Fermin Leizaola etnografo ospetsuak eman zigun, gazte denboran Ameriketako artzain egoniko gizon ireki, umoretsu eta abegikor honen berri. Egin ere, inkesta bat egin zion aipatu Elkarteko Etnografi Sailak aspaldi, bi tomotan, argitara eman zuen *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa (EAEL)*erako (1983-1990), bigarreanean, gainera, hainbat gairi buruzko testu etnografikoak ekarriz.

Horren berri izanik, gure laguna bisitatzen hasi ginen eta, aise ondoriozta daitekeenez, hona dakartzagun emaitzak harreman hartatik zerturiko emaitzak dira.

Kaliforniako egonaldiak, baina, utzi zuen arrastorik haren mintzatzeko eran, inguruan izan zituen Baigorri eta Garazi inguruko artzainen eragina nabaria baita hainbat esapidetan –aditzarenean bereziki–, gure lagunaren euskara, bere osotasunean harturik, artzibartar aski jatortzat jotzen badugu ere.

Zeren, esaterako, baldin jaun honi bilduriko adizki batzuk, lan honetako lehenengo bi zatietan berriemaile gisa izan genuen Saturnino Etxamendi arrietarrari<sup>11</sup> jaso genizkioneekin erkatzen baditugu, bien arteko ezberdintasun batzuk badirela ohartuko gara, azken hauek, Etxamendirenak, Artzibarko jatorrak direla kontuan izanik.

Izan ere ‘nor’ delako sailean *gara* bildu genion Etxamendiri (*gira* Usozi); ‘nor-nork’ delakoan *nue / nuen* Etxamendiri (Usozi ere gauza bera, baina baita *nin* ere); *zue / zuen* Etxamendiri (Usozi ere gauza bera, baina baita *zin / zien* ere); *ginue / ginuen* eta *gindue / ginduen* Etxamendiri (*ginuin / ginuen / ginduen* baina *ginin / gindin* ere bai Usozi); *nituen* Etxamendiri (*nitin* Usozi); *zitue* Etxamendiri (*zitin* Usozi); *gindue* –pluralizatu gabe– Etxamendiri (*giniztin* Usozi); *zute / zuten* Etxamendiri (*zuten* Usozi); eta, ‘nor-nori-nork’ sailean, azkenik, *digute* Etxamendiri (*daute* Usozi).

Etxamendiri, alabaina, ‘nor’ sailekoan, ohiki, *naiz, zara, aiz* eta lehenxego aipaturiko *gara* bildu genion arren, inoiz edo behin *niz, iz, bazira* eta *gia* moduko erak ere bildu genizkion.

Zenbait alditan haatik, Mendebaldekorik gabe Ekialdeko Behenafarreraren ezaugarri bat den zukako era alokutiboaren adizkiren bat erabili zuen Usozek, garzarrak ziurrenik, hauen artean xukako erak ere ohikoak izan arren.

Eta hitzei dagokienez, azkenik, Artzibartik kanpokoak diruditen batzuk erabili zituen inoiz gure lagunak: *andana, arno* (*ardo* ere bai), *atxiki, biziki, eskuara* (gehienetan *euskara* erabilita ere), *sakela, untsa, untsalaz, xarmant...* eta, agian, *auteman*<sup>12</sup>, itxura zertxobait aldatuak beste batzuekin batera: *burian, ingurian, ordian...* adibidez.

<sup>11</sup> Emaitzak Pedro de Yrizarren *Morfología del verbo auxiliar Altonavarro Meridional* izeneko liburuan agertu ziren (115-121 or.)

<sup>12</sup> Hitz hau, Azkuek dioenez gainera, aski hegoaldean geratzen den Esteribarko Ilurdotzen ere aditu dugu: *eztire... ezture auteman, batre, batere, no se han dado cuenta de nada (...), no han observado nada*, eta Odieta Latasan ere antzera: *auteman dut = me doy cuenta*. Elkanoko Lizarragak ere erabili zuen gainera.

## Sukalde ondoko kontuak (1980)

- *Hemen sua fuerte dago, e?*

Bai, onék e... despéitzen dú onek, berotasún ori, ezperén? emén eztáike bizí, je! òtzaekí? ejé...

- *Eta zu sendo, fuerte jarri zara?*

Bái-bai, oái, yaten dút e... zèrnaizík yáten dut, eta... edána ez, bátre.

- *Kendu dizute?*

Kendú?... éztakit; bái-bái, ez edáteko errán tzidáten. Ta badú láu ilábeta, arára juan eskèrostík<sup>13</sup> eztút edán gotáik ere. Eún batéz e... edan nín? baso át txípia, badú... il(l)ábeta lo que es, ta... autéman nítza eróritz!... je! trípan ta, bái-bai, ta ¡bueno-bueno! obé dut ez edan ník (barrez), ta, que el miedo guarda la viña, ejéje! badákizu orrék zé erran nai dín?

- *Beldurra sartu?*

Beldúrra? bah! beldúrra zendakó? pues sí... laúna bádaukát, sobrínoa.

- *Hemengo berekoa?*

Bái-bai, eméngo sémëa da óri, e?... nóiznai tortzen dá, badú orr etxe bát, oái ai dá... itén, éztakit ezkóndiko dén edo, ìnen duén (barrez).

- *Eta konprenditzen du, zerbait?*

Te, euskéra? éztakit, ník uste! (ilobari): Ya hablas eusk... vasco?

(Rafael, Ambrosioren iloba): Poco, para entender mucho pero de hablar poco. (Guri): Yo lo primero que he oído es el vasco; la madre<sup>14</sup> habla como éste o así. Vive en Aoiz. No, ahora ya se me está olvidando, antes ya entendía mucho. Yo hasta los... los años que murió el padre, he oído todo vasco.

Setenta y zinco años o así tiene la madre...

(Rafael): Hasta los quince años todo, y ahora no tengo ni idea; ahora... cada vez te hace mucho, coges muchas palabras sueltas pero pa hablar nada. Si estás percataó a la conversación... Mí padre hablaba inglés, francés y vasco.

Estuvo en América aquél.

(Rafael): Pero se murió en el 55 y yo tenía pues, 16 años.

- *¿De dónde era?*

(Rafael): Mi padre nació en Burguete.

¿En Burguete? ¡qué va!

(Rafael): Después estuvo en el puente de Arnegi.

Fue carabinero...

(Rafael): Ése vivió en el puente de Arnegi pero, del puente de Arnegi bajaron a Burguete, el padre nació en Burguete, y de ahí se fue a... se fue a América.

.....

(Maximina Orrio, Ambrosioren emaztea, etxera iritsi zen eta geroxeago ikusiko denez, handik pixka batera, Garaikoneko Sole Arbonies ere bisita egitera agertu zen)

<sup>13</sup> Hitz hori ez da garbi entzuten.

<sup>14</sup> Lan honen hasieran aipatu den Paca Larrageta, alegia.

**Ehiza-denborakoak (1980)**

Artu nué, je!... zartzén eskópeta, ta bestéak kùsi zirán, beré karákas ártara; ejé! oáñ e eméñdi ta, akàtxatu zén... te agàtxatu zuén ta, ník tiróa disparatú ta, emén yo nekón perdigón bat.

- *Begi ondoan?*

Begí ónduan, arrépa tzekón begía? adiós!

- *Hori noiz?*

Orí? bádu... ogéitabóst-ogéitamarr urté... Beh! ordían ezkínen deus bàrätzen emén eta... béti, eméngo èrbi guziák e, guk, bíen ertéan arrépatzen gínin. Orái eztá olákorik, erbíek e eztáute kásuik íten ére!... orái basúrdeí...

- *Ederragoak dira erbiak baino...*

Bai, bàña... eh! juntátzen diré orr é, tánda batzúk? amár-amábi gizón ta, éztute...

- *Tanda batzúk? kuadrilla?*

Eiztériak, eztériak, bai... eiztériak! tzakúrrä, txakúrr andána baduté ór? urté guzián? eztá atzekitén deus é! orái? eúnero atràko diré sárrri. Eztá, eztá ola... yoan dén urtetán bezála, eizía, bah!... basurdéak; patatétan e... dañóa egìten zutén ta, aurtén èzta kejjátzen yendéa.

(Sole Arbonies auzokoa): Badiré, bai...

Badíre, bàña... eztá kejjátzen, yoan dén úrte bezála. Atzó, ník usté, norbáit bazéilan or, ta... Arrítako bordáldetan, eta... argía ikùsi nué ník, orí ta zerbáit bazén, erési gínuin baztérrak bàña, atrá nitzán orrára, ta kanpóra, ta gurnín (?) argía or, mendían góiti? basúrde-, basúrdetan àri zirén, patáterri zenbáit... bìar báda... ba-, baitzén, segur ere... Buenó, zé nóuzu ta? yardùkitzéa? (barrez).

- *Nola erraten duzue: erran, mintzatu, hitz egin, iharduki, edo...?*

Míntzatu... míntzátu; émen míntzàtzen dá... uskára guttí, orái...

(Sole): Orái gúti.

- *Guti baina ona...*

Eztakít óna o gaixtóa o zer dén bàña...

(Sole): Ambrosio... bádaki, óngi; gúk ez. Orí bai, óngi...

.....

Buuuh! pasátzen tzirén... bánda tras bánda, béti éldu! éldu! éldu! éldu!... egúnak eta án, ótsoekin.

- *Otso?*

Ótso?... ez (barrez), úxo; eún guzián pasátzen ai diréla, nón-nai, enuké errán... eún guzián.

- *Uso-saldoak?*

Úso, usó-sáldoak, bai.

- *Erraten da 'uso-saldo' ala ez da erraten?*

Eeeh! revuelto! (barrez).

- *Eta ardi-saldo, un rebaño...*

¡Un rebaño de ovejas!... el otro día han mataö ahí no sé cuántas, los perros, sesenta y ocho que han mataö en...

**Orreagarako beila (1981)**

- *Orreagara joan izan zara inoiz? peregrinazionean edo?*

Peregrinazioneán... anítz aldítz!

- *Zenbat urte zenituen orduan?*

Nik? amaláu urtetáik goití, urtéro, ogéi... ogéi urtétaraño; ordían yoan nitzé Kalifòrníará ta, akábo. Bah! ondórean egon náiz báí, or, mezán ta, Orreágan baña... ánitiz áldiz ez.

- *Zenbat herri joaten ziren?*

Orreágará? denbóra aetán e... ba, ogéi, ogéi errití koití bai... e? erri gúzietaik yoáten tziren, ta... gurútzia, cuando menos, emàten tzúten... gurútzia édo, elízako gurútzia.

- *Non eramaten, bizkarrean edo?*

Ba, bizkárrean, bai, klaró!... Bazíre, bazutén Orreágitik eta... Zazpé ta Gurpégi ta oék; urrún geldítzen díra...

- *Haiek ere etortzen ziren?*

Bai, bai, bai... dénak etortzen tziré.

- *Eta Artze... Artze erraten da?*

Valle de Artze.

- *Eta Artzeko herri guztietatik joaten ziren?*

Bai, bai. Géro... así zirén ya, e... uztén erriéra, así ziren ánitiz: Asnós, Rá-la... ta...

(Gurekin zen Ambrosioren iloba Rafael, lehen aipatua): Zarikieta...?

Bah! ník eztakít denák eré... ejejeje! ánitiz errí ere... juan tziré, èmen ére... gutíz gu-, dénak kasík, juan diré emendéko... barridè untakoák? éje!...

- *Eta oinez edo zangoz edo... nola erraten da?*

Oñéz, oñéz eta... zenbaitzúk juàten tzirén... urtúxik!

- *Mozorro edo zerbait jantzirik?*

Bai, bai... túnika.

- *Nolakoa zen tunika hura?*

Urá? pues... eta blusá aúndi bat bezalá? beláunetaík bèitirañó? ta geró bazirén e... aurpégian eré... tapatzéko, aurpègia tapatzéko ere bazirén berríz e... begiák, bakarrík ikustekó...

- *Aurpegia tapatzeko zer erran duzu?*

Túnika; túnika... bére...

- *Orduan, 'mozorroturik, mozzoraturik' erraten da?*

Bai, bai, mozzórrotu bezála, bai.

- *Eta gurutze batzuk ere eramaten ziren...*

Bai, bai, soñeán... gaztériak, gaztériak eramàten tzítin, e... gurútzia.

- *Eta herri bakoitzak, bere elizako gurutze burnizkoa ere... 'burnizkoa' erraten da?*

Burdinezkóa.

- *Hori aurretik, altzinetik edo...?*

Bah! xégun nóla... nóla gertàtzen dík.

- *Apezak ere joaten ziren?*

Ba, apezák ere báí.

- *Eta nola joaten zen, kantuz edo?*

